



Nola bete parte hartzeko eskaera?

Hasteko, **beharrezko agiriak bildu behar dituzu** formatu digitalean.

Agiri bakoitza fitxategi ezberdin batean digitalizatu behar duzu, eta egiaztatu dokumentazioak **ez duela balioa galdu**. Hobe da fitxategiaren **izenak edukia laburbiltzea**.

Izena emateko inprimakian, bi dokumentu klase sar daitezke, “baldintzak” eta “merezimenduak”:

- **Baldintzak:**

- NANA edo bestelako nortasun agiria (AIZ, pasaporte eta abar)
- Behar den titulu
- Prestakuntza pedagogikoaren ziurtagiria (Masterra, IGA eta abar)
- Ordainketa gutuna/k

- **Merezimenduak:**

- Lan esperientzia
- Beste titulu batzuk
- Ikastaroak, prestakuntza etengabea eta abar

Guztia prest duzunean, eskaera betetzen hasi, “Tramitatu” botoia sakatuta fitxa honetan berean; handik, urrats hauek egingen dituzu:

1. Zure burua identifikatu behar duzu, bide hauetariko bat segituz:

- Ziurtagiri digitala
- Cl@ve sistema
- NANA + Nafarroako Ogasuneko PINaren azken 4 digituak

navarra.es

Castellano Euskera Francés English

Utilice el buscador introduzca palabra/s buscar

NAVARRA TRÁMITES TEMAS GOBIERNO ACTUALIDAD

Identificación por Certificado de Usuario

Registro General Electrónico

Certificado de Usuario

Utilice un certificado digital válido para acceder.
Consulte las [certificaciones admitidas](#) para las tramitaciones on-line.

Continuar

Otros accesos

DNI + PIN >

cl@ve

Gobierno de Navarra

Contacte con nosotros | Accesibilidad | Aviso legal | Mapa web



2. Zeure burua identifikatu ondoan, **hurrengo pantailara** egin aurrera; bertan agertuko da zer oposizioan ari zaren izena ematen. Eremuak aitzinetik definituak ditu eta “Hurrengoa” baizik ez duzu sakatu behar.

navarra.es

Castellano Euskara Français English
Bilatzailea Sartu hitzak Bilatu

NAFARROA ZERBITZUAK GAIK GOBERNUA AKTUALITATEA
Laguntzak eta bekak Kontratazioak Enplegu publikoa Zerbitzuak

2020ko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko oposizioan parte hartzeko eskaera

Eskabidea bete

- Jomuga (*)

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA/SERVICIO DE SELECCIÓN Y PROVISIÓN DE PERSONAL DOCENTE

- Eskabidearen laburpena: (*)

2020ko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko oposizioan parte hartzeko eskaera

(*) Nahitaezko datuak

Aurrekoa Hurrengoa

Jarraitu beharreko urratsak

- 1 - Eskabidea bete
- 2 - Datu pertsonalak
- 3 - Datos específicos
- 4 - Sinatu eta igorri
- 5 - Egiaztatzea

3. Hurrengo pantailan zure datu pertsonalak agertzen dira eta hautatu behar duzu eskaera zure izenean edo beste inor ordezkatzuz giten duzun:

navarra.es

Castellano Euskara Français English
Bilatzailea Sartu hitzak Bilatu

NAFARROA ZERBITZUAK GAIK GOBERNUA AKTUALITATEA
Laguntzak eta bekak Kontratazioak Enplegu publikoa Zerbitzuak

2020ko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko oposizioan parte hartzeko eskaera

Datu pertsonalak

Esan ezazu eskabidea zure ordezkari edo beste baten ordezkari gisa erabiltzeko duzun: (*) Nahitaezko datuak.

Neure izenean Honako honen ordezkari

Interesatuak erantzun telematikoa eskatzen du eta berresten du baduela [Gaitutako Helbide Elektronikoa](#) eta harpidetua dagoela [Nafarroako Gobernuaren jakinarazpen elektronikoko prozeduretan](#).

- Eskabidearen aurkezlea:

NAN/IFZ/IFK/eIDAS (*):

Izena (*):

Lehen deitura (*):

Bigarren deitura:

Helbide elektronikoa:

Telefonoa (*):

Kalea (*):

Zenbakia:

Eskailera/Solairua:

Herialdea (*):

Probintzia:

Herria (*):

Posta Kodea (*):

Aurrekoa Hurrengoa

Jarraitu beharreko urratsak

- 1 - Eskabidea bete
- 2 - Datu pertsonalak
- 3 - Datos específicos
- 4 - Sinatu eta igorri
- 5 - Egiaztatzea



4. "Hurrengoa" sakatuta agertzen zaizun pantailan **zenbait ekintza** egin behar dituzu:

- A) A) **Sakatu** aitortpenaren laukia. Ekintza honen bidez, **aitortzen ari zara** ez zaudela inolako desgaitasuna egotzen, eta betetzen dituzula deialdian parte hartzeko baldintzak; **ez da beharrezkoa horren gaineko dokumentu gehiagorik aurkeztea**.

navarra.es

Castellano Euskara Français English
Bilatzailea Sartu hitzak Bilatu

NAFARROA ZERBITZUAK **GAIK** GOBERNUA AKTUALITATEA
Laguntzak eta bekak Kontratazioak Enplegu publikoa **Zerbitzuak**

2020ko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko oposizioan parte hartzeko eskaera

Datos específicos

Partehartzeko eskabidea

Honako hau adierazten dut: Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa badudala, ez negoela eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua, ezta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizita ere, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean Hezkuntza kontseilariaren ekainaren 18ko 302/2020 Foru Aginduan ezarritako beharkizun eta baldintza guztiak betetzen ditudala, eta badudala ondoko espezialitate (et)an sartzeko deialdian eskatzen den titulazioa, reinen kopia dakart.

Jarraitu beharreko urratsak

- 1 - Eskabidea bete
- 2 - Datu pertsonalak
- 3 - Datos específicos**
- 4 - Sinatu eta igorri

B) **Hautatu zer txandatan** emanen duzun izena:

a. Sartzeko txanda

Partaidetza modua

Prozedura mota

Sartzeko
Erreserba

b. Desgaitasuna dutenentzako txanda. Desgaitasunaren ziurtagiria erantsi behar duzu, eta horretarako laukian egokitzapenak adierazi, halakorik behar izanez gero.

Partaidetza modua

Prozedura mota

Sartzeko
Erreserba

Desgaitasunaren datuak

%33ko edo gehiagoko desgaitasun egiaztatua

Desgaitasunaren ziurtagiria

Proba egiteko eskatutako egokitzapenak (Gehienezko karaktere kopurua: 250).

- C) Hautatu nazionalitatea
- D) Erantsi **NANa edo dokumentu** baliokidea, eskaneatua (bi aldeetatik eta fitxategi bakar batean)
- E) Ordaintzetik salbuetsia (hala bazaude). Erran adierazitako arrazoiengatik **tasak ordaintzetik salbuetsirik** zauden
- F) Sartu **ordainketa-gutunak**. **Ordainketa-gutun bat** egin beharko duzu izena ematen duzun espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko.

Datu pertsonal osagarriak

Nazionalitatea

Nortasun agiria

Tasen ordainketa

Aditza ematen dut, nire erantzukizunpean, Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuaren abenduaren 18ko 302/2020 Ebazpenean azterketa eskubideak ordaintzeari buruz aipatzen den salbuespenaz baliatzeko asmoz, ez dudala hilabetean lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako diru-sarrerarik izan, lan-eskatzaile gisa inskribaturik emandako denboran (ikusit honi erantsita doan agiria, Enplegu Zerbitzuak egina)

Ordainketa-gutuna

- G) Hautatu **espezialitate bat edo gehiago**, behar diren laukitxoak markaturik.

Espezialitateak

LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO PROZESUAK / EUSKARA
- BERO ETA FLUIDO EKIPAMENDUEN INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK / GAZTELANIA
- ELIKAGAIEN ELABORAZIOKO LANAK ETA EKIPAMENDUAK / GAZTELANIA
- IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK / GAZTELANIA
- INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK / EUSKARA
- INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK / GAZTELANIA
- MAKINEN MEKANIZAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK / EUSKARA
- MERKATARITZA PROZESUAK / GAZTELANIA
- SUKALDARITZA ETA PASTELGINTZA / GAZTELANIA



- H) Prestakuntza pedagogikoa: aukeratariko bat hautatu behar duzu, behar den **prestakuntza pedagogikoa egiaztatzeko** (Masterra, IGA eta abar).

Prestakuntza pedagogikoa

Ziurtatzen dut:

- Irakasle ibili izana, 2009ko urriaren 1a baino lehen, 12 hilabetez gutxienez, behar bezalako baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo Batxilergoan, Lanbide Heziketan edo Hizkuntza Eskola Ofizialetan. (Baldintza hori betetzeko ez da beharrezkoa zerbitzuak egin izana izangaiak sartu nahi duen kidego berean, baizik eta zerbitzuak aipatu kidego horietarik edozeinetan egin izana).
- Titulu hauetariko bat edukitzea, 2009ko urriaren 1a baino lehenagotik: maisu-maistra diploma, Pedagogia eta Psikopedagogiako lizentzia, edo barnean prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa hartzen duen lizentzia.
- Irakaskuntzako gaitasun agiria edukitzea edo Irakaslanerako espezializazioaren titulu profesionala, 2009ko urriaren 1a baino lehenagotik.
- Unibertsitateko master titulu ofiziala edukitzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen lanbide arautuetan aritzeko gaitzen duena.
- Unibertsitateko titulurik izan gabe Lanbide Heziketako irakaskuntzetan sartzeko irakaskuntzarako titulu baliokidea dutenentzat: irakasle ibili izana, gutxienez ere hamabi hilabetez, behar bezalako baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, Lanbide Heziketako edo Kiroletako ikasmila eta irakaskuntzetan.

Prestakuntza pedagogikoaren
ziurtagiria

Examinar...

Erantsi

Ezabatu

- I) Erantsi **dokumentu eskaneatuak**, bakoitza dagokion atalean, bakoitzaren **kategoriaren arabera**:

- a. **Tituluak.** Titulu bakoitza orri guztiak dauzkan dokumentu bakarrean agertu behar da, edukia laburbiltzen duen izen batekin.
- b. **Alegatutako tituluaren ikasketa espedientea.** Espedientea orri guztiak dauzkan dokumentu bakarrean agertu behar da.
- c. **Hizkuntzen gaineko egiaztagiria edo tituluak.** Atal honetan hizkuntzen titulazioak aurkeztuko dira.
- d. **Irakaskuntza esperientziaren ziurtagiriak.** Nafarroako ikastetxe publikoetan esperientzia izanez gero, hura ofizioz jasoko da, departamentuaren artxiboetatik. Ziurtagiriekin deialdiaren I. eranskinean ezarritako baldintzak bete behar dituzte.
- e. **Etengabeko prestakuntza** Fitxategi bat erantsi behar da zure ustez puntuagarria den dokumentu bakoitzeko.

Erantsitako agiriak

Eskatzen den titulua	<input type="text"/>	Examinar...
	<input type="text"/>	<input type="button" value="Erantsi"/> <input type="button" value="Ezabatu"/>
Alegatutako tituluaren ikasketa- espedientea	<input type="text"/>	Examinar...
	<input type="text"/>	<input type="button" value="Erantsi"/> <input type="button" value="Ezabatu"/>
Euskararen, ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren ezagutza egiaztatzeko titulazioak	<input type="text"/>	Examinar...
	<input type="text"/>	<input type="button" value="Erantsi"/> <input type="button" value="Ezabatu"/>
Irakasle lanetan izandako esperientzia	<input type="text"/>	Examinar...
	<input type="text"/>	<input type="button" value="Erantsi"/> <input type="button" value="Ezabatu"/>
Etengabeko prestakuntza	<input type="text"/>	Examinar...
	<input type="text"/>	<input type="button" value="Erantsi"/> <input type="button" value="Ezabatu"/>

- J) Behin dokumentu guztiak sartuta, **azken pantailara** ailegatuko zara; bertan egiaztatzen ahalko duzu **sartu dituzun datu guztiak zuzenak diren**, eta erantsitako dokumentuen zerrenda gehitu.
- K) Dokumentuen egiazkotasunari buruzko baldintzak irakurri eta onartu ondotik, **eskaera "Sinatzea eta igortzea"** baizik ez da falta. Horrek ziurtagiri bat sorraraziko dizu, prozesuan izena zuzen eman duzula bermatzen dizuna.

Erantsitako agiriak

Eskatzen den titulua
Documentacion.pdf

Aurkeztutako dokumentuak

Documento de identidad - Documentacion.pdf
Formación pedagógica - Documentacion.pdf
Exención de tasas - Documentacion.pdf
Título - Documentacion.pdf

Datu babesari buruzko informazioa

Tratamenduaren arduraduna	AEPD fitxategia: BD Dokumentuen Erregistroa Arduraduna: Argibide eta Erregistro Bulegoa.
Tratamenduaren xedea	Pertsonen datuak bildu eta eguneratzea Nafarroako Gobernuko Administrazioari egindako eskaerak tramitatzeke.
Tratamenduaren legitimazioa	Arduradunaren interes legitimoa eta legezko betebeharrak betetzea
Hartzaileak (lagapenak edo transferentziak)	Ez zaizkie datuak hirugarrenei lagako, salbu legezko betebeharra badago
Interesdunen eskubideak	Datuak zuzendu eta deuseztatzeke eta haietara iristeko, baita informazio gehigarrian adierazitako eskubideak ere.
Argibide gehigarriak	Erakutsi informazio gehigarria

irakurri ditut eta onartzen ditut **dokumentuen egiazkotasunari. (Ikus baldintzak)**



Aurrekoa Sinatu eta igorri

Momentu horretatik aitzina izena emanda zaude, eta onartuen behin-behineko zerrendak argitaratu zain geldituko zara, orduan egiaztatzen ahalko baituzu zure eskaera zuzena den edo zuzenketaren bat behar ote duen. Zure posta elektronikoa **eskabidea aurkeztu izanaren frogagiria** jasoko duzu; garrantzitsua da **egiaztatzea** inskripzioaren **espezialitateak** zuzenak direla, eta **dokumentu guztiak** erantsi direla.



NOLA ZUZENDU PARTE HARTZEKO ESKAERA, JADANIK AURKEZTU DUZUNEAN?

Prozesu honetan **ez da posible jadanik aurkeztu duzun eskaera editatzea edo berregitea**; beraz, zerbait zuzendu nahi izanez gero, prozesu guztia berritik egin beharko duzu eta **beste eskaera** bat sortu, lehengoa sistematik **osotara ezabatzea** ekarriko duena.

Horrenbestez, ez duzu parte hartzeko eskaera aldatzen ahal, berria egin baizik, aurrekoan sartutako datu eta dokumentu guztiak berriz ere izanen dituen.

Eskaera bat egiterakoan, aurretik beste bat gauzatua baduzu, **sistemak mezu hau erakutsiko dizu**:

Datos Específicos

— Instancia de participación —

¡Aviso!

Existe una instancia en la actual convocatoria de Oposiciones.
Si desea presentar una nueva instancia se anulará la anterior y se ignorarán los datos y documentos anteriormente aportados.
Se considera una instancia de participación por persona siendo válida la última instancia aportada.

Pulse Cancelar si no desea hacer una nueva instancia

Prozesuan aurrera egiten baduzu **onartzen ariko zara osotara ezabatzea** lehenago aurkeztu zenuen eskaera, erantsitako agiriak barne. Inprimakia berri bete beharko duzu, eta agiriak berriz erantsi.

Nolanahi ere, **azken eskaera eta agiriak baizik ez dira baliozkotzat hartuko.**